

Gizarte esparrua

1. Definitu itzazu ondoko kontzeptuak:

(puntu 1)

a).- Gizarte harraparia, adibide bat jarri

b).- “Gamazada” (Nafarroako historian).

2. Erantzun itzazu ondoko galderak:

(puntu 1)

a).- Idatz itzazu sei kontinenteren izenak

b).- Idatz itzazu iberiar penintsula inguratzen duten itsasoen eta ozeanoaren izenak

3. Esan ezazu ondoko **estatu** hauek zein **kontinenteetan** eta zein **hemisferiotan** dauden:

(puntu 1)

Estatua	Kontinentea	Hemisferioa
HUNGARIA		
MADAGASKAR		
AUSTRALIA		
PANAMA		

4. Esan ezazu ondoko **hiri** hauek zein **estatutan** dauden eta bertan zein **hizkuntza** egiten den:

(puntu 1)

Hiria	Estatua	Hizkuntza
PRAGA		
RABAT		
DUBLIN		
QUEBEC		

5. Lotu itzazu ondoko zutabeak:

(puntu 1)

- | | |
|-------------------------|--------------------------------|
| 1.- EMILIO ARRIETA. | A).- IDAZLEA. |
| 2.- JUAN DE ALBRET. | B).- NAVAS DE TOLOSA. |
| 3.- JULIÁN GAYARRE. | C).- KONPOSITOREA. |
| 4.- ANTZO VII. AZKARRA. | D).- JENERAL KARLISTA. |
| 5.- ARTURO CAMPIÓN. | E).- TENORRA. |
| 6.- ZUMALAKARREGI. | F).- NAFARROAKO AZKEN ERREGIA. |

ERANTZUNAK

- 1.: C
 2.: ...
 3.:
 4.:
 5.: ...
 6.: ...

6. Idatz ezazu dakizuna “1917ko errusiar iraultzaz” (Nabarmendu ziren pertsonaiak, zein sistema politiko berri sortu zen, etab.)

(2 puntu)

7. Idatz itzazu zeintzuk diren ondoko Nafarroako ondoko erakundeen funtzioak:
(puntu 1)

a).- Nafarroako Gobernua

b).- Nafarroako Parlamentua

c).- Comptos Ganbera

8. Testua.- “Antisemitismoa: juduen genozidioaren berezitasuna” (2 puntu)

Antisemitismoa Europan Erdi Aroan sortu zen. Aurreiritzi erlijioso eta kulturalak direla eta, juduak Kristoren heriotzaren erruduntzat jotzen ziren (jainko-hiltzaileak) eta gaitzetsi egiten zen gutxiengo gisa bizitzeko eta bizitzen ziren gizarteetan ez integratzeko zuten joera. Politikoki, nazionalistek “traidoretzat” eta “atzerritartzat” jotzen zituzten, ez baitziren bizi ziren komunitatearekin identifikatzen. Bestalde, liberal eta sozialista ugari zeuden familia juduetan (Marx, Trostki, Rosa Luxemburg...). Hori dela eta, eskuin kontserbadoreak sarritan lotu zuen judaismoa demokraziarekin, masoneriarekin eta iraultzarekin. Beraien aurkako aurreiritzi sozialak izan ziren ere: langile batzuek eta herri-klaseek juduak lotzen baitzituzten lukurreriarekin, merkataritzarekin eta kapitalismoarekin. Izan ere, jarduera horiek debekatuak zeuden kristauendako Erdi Aroan. Azkenik, antisemitismoa arrazismotik elikatu zen, juduak biologikoki arraza desberdin baten kide zirenen okerreko ustean. Historialari gehienek juduen genozidioa historian emandako gertakari bakartzat jotzen dute. Genozidio honen berezitasuna ez datza hildakoen kopuruan (seiren bat milioi) edo masiboki hiltzeko metodologian, baizik eta helburuan: gizateriaren birmoldatze biologikoa. Lehenengo aldiz gizakien sarraskia ez zen helburu bat lortzeko bitarteko izan, baizik eta berezko helburu. Nazismoak erabaki zuen pertsona batzuek, judu jaio izanagatik ez zutela planetan bizitzeko eskubiderik.

Oxford argitaletxea.

Gadlerak:

a).- Zein beste herri, gutxiengo etniko edo kulturalak, jazarri, esklabizatu edo erail zituzten Bigarren Mundu Gerran?

b).- Bada gaur egun jazarpen eta erailketarik arrazoi arrazista edo ideologikoengatik? Deskriba ezazu.

c).- Zein da arrazismoaren eta genozidioaren arteko harremana?

d).- Zer da sarraski-gerra bat? Uste al duzu historian zehar halako dimentsioak eta ondorioak izan dituen gatazkarik izan dela?

PUNTUAZIOA, GUZTIRA: 10 PUNTU